AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

1958

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 6koa, Segurtasuneko sailburuordearena eta Administrazio eta Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena, baterakoa; honen bidez, iragarri egiten da noiz argitaratuko den 2015eko maiatzaren 6ko Ebazpena, Segurtasun Saileko Gurenet atarian. Ebazpen horren bidez, onetsi egiten da Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko prozeduran onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda. Prozedura horretarako deia 2015eko martxoaren 27ko Ebazpenaren bidez egin da, zeinek Oinarrizko Eskalako agentearen eta agente lehenaren kategorietako zein Ikuskapen Eskalako ofizialondokoaren eta ofizialaren kategorietako lanpostuak, izendapen askearen (C106) eta berariazko merezimendu lehiaketaren (C107 eta C108) sistemen bidez hornitu beharrekoak, betetzeko deialdia, eta lanpostuen aldi baterako esleipena egiteko prozedura onartzen eta argitaratzen dituen.

Segurtasuneko sailburuordearen eta Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2015eko martxoaren 27ko Ebazpenaren bidez, Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko deialdia onetsi eta argitaratu zen. Bada, beraren hirugarren ebazpenean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUGU:

2015eko maiatzaren 6ko Ebazpena Segurtasun Saileko Gurenet atarian 2015eko maiatzaren 6an argitaratu dela jakinaraztea. Ebazpen hori Segurtasuneko sailburuordearena eta Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena da, eta Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko prozeduran onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onesten du. Prozedura horretarako deia 2015eko martxoaren 27ko Ebazpenaren bidez egin da, zeinek Oinarrizko Eskalako agentearen eta agente lehenaren kategorietako zein Ikuskapen Eskalako ofizialondokoaren eta ofizialaren kategorietako lanpostuak, izendapen askearen (C106) eta berariazko merezimendu lehiaketaren (C107 eta C108) sistemen bidez hornitu beharrekoak, betetzeko deialdia, eta lanpostuen aldi baterako esleipena egiteko prozedura onartzen eta argitaratzen dituen.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 6a.

Segurtasuneko sailburuordea,
JESÚS MARÍA ZUBIAGA NIEVA.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.